

Dantza jaialdia prestatzen

Alurr, Oinkari eta Udaberri, biharko prest ▶ 4-5



Akusazio guztiak ukatu dizkio Igor Astibiak epaileari

LEITZA ▶ Tratu txarrik ez jasan arren une «oso larriak» pasatu ditu; eguerdian, bi orduko geldialdia ▶ 2



San Gregorio eguna egin dute herrian

ALBIZTUR ▶ Urteroko ohiturari jarraituz, herenegun San Gregorio egunean meza eta afaria egin zuten Albizturren. Duela gutxi berriro duten izen bereko ermitan izan zen meza eta ondoren 30 bat lagun Ugarte jatetxean elkartu ziren afaltzeko. Aurreko igandean berriz, toka txapelketa izan zuten eta Jose Mari Lasa, Maribi Barandiaran eta Eneko Labaka izan ziren irabazleak. **MADDI SOROA** ▶ 6

BERROBI ▶


Frontenis txapelketa bihar hasiko da herrian

33 bikote eta banaka 37 partaide daude ▶ 7

VILLABONA ▶

Eneko Gorostidi aske uztea eskatuko dute manifestazio batean

«Aurkako frogarik gabe», abokatuaren esanetan, urtebete darama preso ▶ 3



IÑIGO TERRADILLOS

Gaur Kontzejua irekiko dute hainbat ekitaldirekin

GAZTELU ▶ Esteban Pagola gazteluarra izango da arduradun berria; kultur ekitaldiak antolatu nahi ditu Udalarekin batera ▶ 7

Zazpi mila lagun espero dituzte Ikasle Egunean

VILLABONA ▶ Bihar egun osoan zehar egingo da; olinpiadak, bazkaria, bertso saioa, manifestaldia eta kontzertua izango dira ▶ 3



LEITZA ▶ GIZARTEA

ETAko kidea ez dela deklaratu du Astibiak

Akusazio guztiak ukatu zituen atzo epailearen aurrean

JOXEMI SAIZAR

Azken egun hauetako Polizia operazioan Hego Euskal Herrian atxilotutako 17 laguntatik 8 —tartean Igor Astibia Telletxea leitzarra— atzo deitu zituzten Baltasar Garzon epailearen aurrean deklaratzera Auzitegi Nazionalan. Atzo beste gazte bat atxilotu zuten Ordizian, Xabier Balerdi.

Goizean Lorea Azpilikueta eta Maider Viso pasatu ziren epailearen aurretan, eta. Askatasunak jakinarazi duenez, ez zuten tratu txarrik salatu. Azpilikuetak ez zuten deklaratu, inkomunikazioa ez ziotelako altxa antza denez, eta Visok inpartazio guztiak ukatu zituen.

Igor Astibiak 19:00ak aldera bukatu zuen deklarazioa, konfiantzako abokatuarekin. ETAko kide ez dela, tratu txarrik ez duela jasok baina une «oso larriak» pasatu dituela esan zion epaileari, senideek azaldu zuten. Ondoren Aitziber Igoak deklaratu zuen. Beste atxilotuak erredakzio hau isterakoa ez ziren oraindik epailearen aurretik pasatu.

Igor Astibiaren senitarteko eta lagun batzuk Madrilera joan ziren atzo. Auzitegi Nazionalaren aurrean hogeita bost bat lagun elkartu ziren, baina poliziek han ezin zutela esan eta urrutirago bidali zituzten. Atxilotu guztiak deklaratu ondoren jakingo zuten aske gelditzen ziren edo ez eta horren zain zeuden azken orduan.

Geldialdia eta manifestazioa

Gaur eguerdiko 12:00etatik 14:00etara geldialdia deitu dute Astibiaren askatasuna eskatzeko eta manifestazioa izango da.



Herenegungo udalbatzarrean kartelekin izan ziren batzuk. J.ASTIBIA

Udalak Igor Astibiaren aldeko mozioa onartu du

Larrain, Aralar eta EAK aurkeztu zuten; atxilotuak aske uztea eskatzen du mozioak

ERREDAKZIOA

Herenegun gauean Leitzako Udalak batzar berezia egin zuen Igor Astibiaren atxilotutaren inguruan eta Larrain, Aralar eta EAK aurkeztutako mozioa onartu zuen.

Mozioan «inpunitate osoz» burutzen dituzten polizia operazioak salatu zituen «pertsonei askatasuna, intimitatea eta segurtasunaren aurka indarra erabiltzea bidegabekoa eta onartezina da: inolako frogarik gabe, errugabetasun printzipioari muzin egin, akusazio hutsak erabili eta gauze hartu eta eraman» erantsiz.

Atxilotuei ezarri dieten inkomunikazioa salatu eta hori kentzea esijitu zuen mozioak «erabateko indefentsioan» dagoelako Astibia eta bost egun horietan torturatua izateko «arrisku larria» duelako.

Torturatu egiten dela frogatuta dagoela eranstu du.

Inkomunikazioak senide eta hurbilekoengan eragiten duen gehitutako zigorra ere salatu zuen Udalak ez dakitelako «non dagoen, nola dagoen, zergatik eraman duten» eta komunikabideetako «kontrastatu ezinezko eta espekulazio huts diren 'informazioen' bonbardaketa» jasan behar dutelako.

Azkenik, atxilotu guztiak aske uztea, Astibiaren eta beste senideei herriaren «hurbiltasuna eta elkartasuna» adieraztea, herritarrei protesta ekintzetan «aktiboki» parte hartzea deitzea eta Euskal Herriko eragileei egoera gatazkatsuari irtenbidea emateko hitz egitea esijitzea erabaki zuen Udalak.

TOLOSA ▶

'Teruelgo maitaleak' zeinu hizkuntzan

Bihar 17:00etan Leidor zine-man *Teruelgo maitaleak* antzerkia antolatu du Gaintzen Tolosaldea-Goierriko gorren elkarteak Zaragoza eta Aragoiko ASZA elkartearen laguntzaz. Juan Diego Martinez de Marcilla eta Isabel de Segura elkarren aurka dauden Teruelgo familia nagusietako bi maitale gazteen historia kontatzen du. Urte asko iraun eta bukaera triste duen amodio historia da.

TOLOSA ▶

Gaur, diaporama Magrebeko astean

Irazki elkarte kulturantzak antolatutako Magreb astean, *Ahaggar... ametsa bat izan nuen* diaporama eskainiko du Iñaki Edroso argazkilariak gaur 19:30ean Kultur Etxean. Ahaggar Aljeriako mendigune bat da, Sahara erdian eta higadurak forma bereziak sortu zituen. Ikusentzunezkoak Aljeriako desertuko bakera eta isiltasunera garamatza, hango forma, ikuspegi eta jendearen bizimoduak murgilduz.

TOLOSA ▶

Bi kontzertu eta zine-kluba Bonberenean

Asteburu honetarako bi kontzertu eta zine-klub saio bi programatu dute Bonbereneako gazte kementsuek. Gaur 22:30ean Discipulos de Dionisios eta Madrilgo Muletrain taldeak ariko dira. Bihar berriz, Bartzelonako Nisei eta Zein? ariko dira, ordu eta toki berean. Etzi berriz, igandea, *La guerra de los mundos* filma eskainiko dute 19:00etan. 5. urtemugako egitaraua ere prestatu dute.



Magrebeko irudia. M.SOROA

TOLOSA ▶

Alpino Uzturre Errioxara, bi aukerarekin

Igandean Errioxara mendira irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak. Matute inguruan bost orduko ibilbide «erraza eta polita» omen da. Beste aukera da Valvanerako monastegia bisitatu eta Anguianora bazkaltzea. Irteera 07:00etan izango da. Gorosabeletik eta prezioa, 10 euro (bazkideentzat 8). Izen-ematea elkartearen: Gudari 5 behe (943 65 27 89) 19:00etatik 21:00etara.

TOLOSA ▶

Tolosa CFko neskek Urnietan irabazi zuten

Asteburuan Tolosa CFko nesken taldeak euriarengatik gaizki zegoen Urnietako futbol zelaian jokatu zuen bertako taldearen kontra eta 1-3 irabazi zuen. Lehen zatia 1-0 bukatu zen, baina ondoren Ixiar Atxukarrok berdinketa lortu zuen penaltiz eta urnietarrak behera joan ziren Josune Corderok bi gol eder sartu zituen eta garai-pena lortu zuten. Saillapenean hirugarrenak dira orain.

hitza **txokoa** lagunena

ZUK ERE
lagun dezakezu HITZA

943 30 43 46

(goizeko 8:30etik gaueko 20:30era)

Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'RESIDENT EVIL 2: APOCALYPSE' filmerako 2 sarreren irabazlea:

IURRE GOIA ERKIZIA HITZaren harpidedun laguntzaile alkizarra.

Aspek antolatuta gaur 22:30ean **Beotibarren** jokatu diren pilota partiduetarako bina sarreren irabazleak diren harpidedun laguntzaileak:

- ONINTZA FERNANDEZ LIZARRA (Ikaztegieta)
- ION JAKA ARANALDE (Tolosa)
- EDUARDO ALIJOSTES SAGARNA (Tolosa)

BERRAONDO - APEZTEGIA
TIRAPU - ERRASTI
EUGI - LASA III
OLAIZOLA I - PEÑAGARIKANO

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

VILLABONA ▶

Manifestazioa Gorostidiren askatasuna eskatzeko

Billabonatar gazteak urtebete darاما preso «bere aurkako frogarik gabe»

I. GARCIA

Atzo bete zen urtebete Eneko Gorostidi billabonatar gaztea atxilotu zutela. Gaur egun Aranjuezeko espetxean dago. «Bere aurkako frogarik gabe, inolako argudiorik gabe espetxean mantentzen dute, epaiketaren zain», salatu du ohar batean Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. «Bere abokatuek jarri dituzten errekurtsioak frogarik ez dagoela eta bere askatasuna eskatuz atzera bota dituzte epaitegiak», gaineratu du presoen aldeko erakundeak.

Denbora guzti honetan bere lagunek eta senideek tinko eutsi diote «montai polizial bat» dela, «estatuak gogor egiten duela adierazteko» eta «froga eta oinarri sendorik gabeko sumarioz betezen dituela orriak eta orriak».

Egoera hau salatzeke eta Eneko Gorostidik «kalean egon behar duela esateko» Amnistiaren Aldeko Mugimenduak gaur arratsaldean egingo den manifestaziora deitzen du. Manifestazioa Villabonako plazatik aterako da, 19:30ean.

VILLABONA ▶ IKASLE EGUNA

Ikasle Eguna jendez beteko ditu kaleak

Goizetik hasiko dira bihar ekitaldiak; zazpi mila lagun inguru espero dituzte

IMANOL GARCIA

Guk, hemen, orain... historia idatziko dugu! leloa aukeratu dute Ikasle Abertzaleek aurtengo Ikasle Egunerako. Villabonan izango da, bihar egun guztian zehar, ekitaldi ugariarekin. Antolatzaileek zazpi mila lagun inguru agertzea espero dute egun guztian zehar. Herenegun Ikasleen Nazioarteko eguna izan zen eta testuinguru horretan kokatzen dute urtero festa eta aldarrikapen egun hau.

Goizean hasiko da egitaraua, herriko plazan 11:00etan izango den harrera ekitaldiarekin. Leku berean egongo da kokatua erakusketak, bertan mundu mailako ikasle borrokak, euskararen presentzia hezkuntzan... aztertuko da. Eguerdietan, 12:15ean, ikasle olinpiadak egingo dira. Joku ezberdinak, frogak... «Umore ona eta dibertsioa ziurtaturik daude», antolatzaileen hitzetan.

Behin gosea egin ondoren, bazkaria egingo da 14:30ean ikastolan. Txartelak goizean erosi ahal izango dira, herriko plazan egongo den postuan 5 euroko salneurrian. Bazkalostean, bostak inguruan, bertso

saioa izango da. Gurea aretoan egingo da eta sarrera doan izango da ikasle eta herritar guztientzako. Bertsolari hauek konfirmaturik daude: Amets Arzallus, Igor Elortza, Iñaki Apalategi, Inaki Gurrutxaga eta Nerea Elustondo. Gorputza pixka bat gehiago mugitu nahi duenarentzat, bestalde, 17:30ean kale animazioa egingo da herriko kaleetan zehar Txatungaba Benbe perkusio taldearen eskutik.

Ondoren, 19:30ean manifestaldia egingo da Villabonako kaleetan zehar festaren lelo nagusiarekin. 20:30ean irekiko dira Txermingo karpa handiko ateak. Bertan, lehendabizi, ekitaldia egingo da, non ikasle mugimenduaren hainbat aspektu nabarmendu eta ikasle eskubideak ardatz gisa hartuko diren.

Azkenik, 21:30ean kontzertu erraldoia egingo da, Las Niñas, Marea, Eraso, Hamlet eta Kauta taldeekin. Kontzertuak 12 euro balio ditu aurrez erosita, eta 15 euro bertan.

MUSIKA ▶

Kalejiran ariko dira bihar Loatzo eskolako ikasleak

Santa Zezilia zaindariaren eguna astelehenean izango dela eta, Loatzo musika eskolako ikasleak kalejiran aterako dira bihar eskualdeko herri ezberdinetan. Goizeko 10:00etan bi leku ezberdinetan izango dira ekitaldiak. Ibarran, esaterako, trikitixa eta dultzainarekin aterako dira. Bestalde, Villabona eta Zizurkilen zehar instrumentu guztiekin ariko dira. Ondoren, eguerdiko 12:00etan, kalejira erraldoia egingo da. Kasu honetan Loatzoko ikasleek Anoetako eta Irurako kaleak alaituko dituzte bere instrumentuekin.

ANOETA ▶

Dantza-sokaren lehen entsegua bihar Gaztetxean

Dantza-sokako parte-hartzaileek lehen bilera egin ondoren, bihar izango dute lehenengo entsegua. Horretarako Gaztetxean egin dute hitzordua, goizeko 10:30ean. Bihartik aurrera, entsegua astelehenean eta asteazkenean izango dira, 19:30ean eta Gaztetxean elkartuko dira ere. Dagoeneko berrogeita hamar lagunek eman dute izena dantza-sokan parte hartzeko. Gazte jende asko inguratu da eta horregatik parte hartzeko beharrezko adina jaitxi egin da. Orain 12 urtetik gorakoek, hauek barne, eman dezakete izena.

ADUNA ▶ KULTUR ASTEA

Musika emanaldien eguna iritsi da

Kontzertuen eguna iritsi da Adunako Kultur Astean. Lehendabizi, gaur 19:00etan, kontzertu berezia eskainiko dute Loatzo musika eskolako ikasleek elizan, Santa Zezili zaindariaren omenez. Musikarien artean, noski, Adunako gaztetxoak ere izango dira. Musikarien ondoan korroa ere ariko da eta bertan adunarrek ere abestuko dute. Gauean, Euskal Herriko musika eta soinu tresnen inguruan Juan Mari Beltranen kontzertu-hitzaldia entzun ahaliko da, 22:00etan Elordi plazako aretoan.



Juan Mari Beltran. HITZA

GUTUN@K ▶



Zizurkilgo Udalari

Lehenik, koka gaitezen: Zizurkilgo Elbarrenako 1 zenbakidun poligonoa, Villabonatik Zizurkil aldera goazela, Pasuenera iritsi baino lehen eta trenbidearen zubia azpitik pasa aurretik, eskuinerantz hartuz dagoen poligonoa da.

Bertako lantegietara sartzeko dagoen bidearen alboko aparkalekua aspaldidanik baldintza negargarrietan aurkitzen dela jakina da. Egunero bide hori erabiltzera behartuta gaudenok, nahiko ondo moldatzen gara bidean zehar lanera joan ahal izateko.

Batzuen ohitura bihurtu da

ordea, kotxea bidearen erdian aparkaturik uztea. Bertan dauden zuhaixken itzalengatik, agian? Aparkalekuko zuloetan beren autoa ez sartzearat, akaso? Hori beraiek jakingo dute.

Egunero handik igaro behar dugunok, auto guzti hauek ekiditearren, aparkalekuko zuloetan sartzera behartuak gaude behin eta berriz. Eta zer esanik ez, enpresetara sartu behar duten kamioi luzeek zernolako maniora amagabeak burutu behar dituzten.

Guzti honen aurrean, Udalak beharrezko neurriak har ditzan eskatzen dugu.

ION ANDER ALTUNA IPARRAGIRRE ▶ ZIZURKIL

Villabona - Kultura

— ANTZERKIA —

ADOS taldea

‘DEKAMEROIA’

ANTZEZLANA

Azaroak 19 Ostirala • Gaueko 22:30ean

GUREA ARETOAN

Udal Kultura Batzordea

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
 Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua:
 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
 ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant R., Zabalarreta 1,
 Tolosa. 943 67 38 49.
Larraia M.I., Elbarren 95,
 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publici@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
 anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
 ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaidea. 687 41 01 18.
 leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Taberna. Gazte taberna salgai
 Tolosan. 660 178 183
Apartamentua. Anoetako
 plaza apartamentua salgai.
 Guztiz berritua, berokuntza
 sistema eta gasarekin.
 615 767 764.

ORENDAIN ▶

Gustura aritu
ziren igandean
kantu bazkarian

Orendaingo Kultura Batzordeak kantu bazkaria antolatu zuen pasa den igandean Eltxo Elkartearen Orendaingo udazkeneko kultur egitasmoaren barnean. Antzuolako abesbatza izan zen kantuan aritu zena. Bazkaltzeko, berriz, marmitakoa izan zuten kantu bazkaria inguratutako 80 lagunek. Antolatu zailen arabera, gustura egon zen jendea.

AMEZKETA ▶

Jose Ramon
Agirrerren
diaporama

Pasa den ostiralean, Jose Ramon Agirre Marron-en diaporamaz gozatzeko aukera izan zuten amezketarrek. Udala eta Galtzaundi izan ziren emanaldia antolatu zutenak. Entzuleek, Gasherbrum II-ko irudietaz gozatzeko aukera izan zuten; emanaldia- ren testu eta hitzek, musika doinuekin batera, bertaraturikoak bizitzaren bidea eza- gutzera eraman zituelarik.



Amezketarrek Gasherbrum II-ko irudietaz gozaten. HITZA

ALBIZTUR ▶ FESTA

San Gregorio egunean meza eta afaria egin dute herritarrek

Igandean hasi zuten festa toka txapelketarekin; meza ermita berrituan izan zen eta afarian 30 lagun bildu ziren



Herritarrek San Gregorio eguneko afarian Ugarte tabernan. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Herenegun izan zuten Albizturren San Gregorio eguna. Urte- ro legez, meza izen bereko er-

mitan, afaria eta toka txapelke- ta izan ziren ospakizuneko osa- gai nagusiak.

San Gregorio eguna ospa- tzeke meza herenegun iluntze-

an izan zen. Normalean, herri- ko elizako parrokiaren egiten da meza, baina, herenegun San Gregorio ermitan egin zuten. Gogoratu beharra dago San Gregorio ermita konpontzen aritu direla orain gutxi arte. Tei- latua guztiz berritzeaz gain, er- mita osoa barrutik nahiz kan- potik margotu dute langileek. Hamabost egunez aritu dira la- nean. Azkenik, egun handirako dena prest geratu da eta meza- rekin batera, ermita berritua

ikusteko aukera izan dute ber- tara inguraturiko herritarrek.

Meza ondoren, afari legea izan zuten atzo albizturtarrek. Afaria, Ugarte tabernan izan zen urtero moduan. 30 lagun inguru bildu ziren mahaian jai giroan. Afariaren ostean, trikiti eta panderoaren soinu alaiez gozatzeko aukera izan zuten herritarrek Arandia anaien es- kutik.

Toka txapelketa

San Gregorio egunean, urtero egiten da toka txapelketa. Nor- malean, San Gregorio eguna tokatzen den aste horretako igandean izaten da. Aurten, or- dea, ezin izan da horrela egin, eta aurreratu egin da toka saioa. Izan ere, igande honetan konfirmazioa egin behar dute hainbat gaztek, beraz, pasa den igandera aurreratu zen toka txapelketa, hilaren 14ra hain zuzen ere.

Eguerdiko mezaren ondoren hasi zen toka txapelketa Ugarte tabernaren alboan eta 30 la- gun inguruk hartu zuen parte. Parte-hartzaile bakoitzak bi ti- radako saioa bete behar zuen; tirada bakoitza zortzi fitxakoa denez, 16 fitxa bota behar zi- tuen bakoitzak guztira. Toka gehien jotzen zuenak irabaziko zuen txapelketa. Berdinketa egon eta desentzuek egin ba- ziren ere, hona hemen azken sailkapena.

SAILKAPENA ▶

Gizonetakoak.

1. Jose Mari Lasas
2. Gorka Arandia
3. Ramon Lasas

Emakumezkoak.

1. Maribi Barandiaran
2. Martina Otamendi
3. Milagros Zeberio

16 urtetik beherakoak.

1. Eneko Labaka
2. Julen Zubizarreta
3. Ander Dorronsoro

AZAROA 20 LARUNBATA
CACIQUE FESTA LEITZAN
 LANDA, LEITZARRA, PERITZA, TXOKO
Anim@ Z@itezte!!

BERROBI ▶ KIROLAK

Bihar hasiko da herrian
XIII. Frontenis TxapelketaParte-hartzaileen kopurua handituz doa
urtero; Jon Ander Izagirren omenez da

I. TERRADILLOS

Bihar hasiko dira Berrobin XIII. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketako norgehiagokak. Bihar, etzi, azaroaren 27 eta 28an eta abenduaren 4, 5, 6 eta 7an jokatu dira partidak.

Gizonezkoetan, guztira 58 izan dira bikoteka izena eman dutenak eta 37 banaka. Emakumezkoetan, berriz, 4 bikotek eman dute izena.

Urtetik urtera handituz doa-la parte-hartzaileen kopurua aipatu dute txapelketako antolatzaileek. Horrela, hasieran egun batean edo asteburu batean egiten zena, egun hiru asteburutan luzatzen da eta hala

ere justu samar moldatzen omen dira partida guztiei lekua egiteko.

Arrasate, Donostia, Beasain edo Ordiziatik etorriko omen dira besteak beste, eta noski eskualdetik ere. Goizeko zortzietan hasi eta gauerarte luzatuko dira partidak eta kanporaketen bidez sailkatuko dira onenak finalerako.

Iazko edizioan binaka Mikel Goitia eta Ekaitz Artola amezketarrak, Nagore Lizardi elduaindarrak eta Amaia Agirre billabonatarra izan ziren irabazleak eta banaka, Niko Artola berrobitarra. «Azken urteetako finalik onenak» izan ziren, antolatzaileek HITZARI adierazi ziotenez.

IBARRALDEA ▶

Nerea Herrartek
ipuinak kontatuko
ditu gaur

Galtzaundi euskara taldeak Toloaldean burutzen duen kultur programazioaren barruan antolatuta, Nerea Herrarteren ipuin kontaketez gozatzeko parada izango da gaur. Ibarren ariko da lehen-dabizi, 17:30ean Benito Izagirre kultur etxean, eta ondoren, Elduainen Urdelar biltokian 18:30ean. Ipuin kontaketa saioak adin guztietara daude zuzenduta, *hiru urtetik ehun urte arteko ume eta gazte guztientzat*.

IBARRALDEA ▶

Sukaldean
ikasteko
ikastaroak

Sukaldean ondo moldatzen ez direnentzat, edo sukaldean aritzea gustuko dutenentzat eta gehiago ikasi nahi dutenentzat sukaldaritzako ikastaroa antolatu nahi dute Ibaraldeko lau herritan. Ikastaro hau Oresa, Leaburu-Txarama, Gaztelu eta Belauntzako herritarrentzat dago zuzenduta. Uli Mankomunitateak antolatu du eta doakoa izango da. Izen-ematea 943 682228 telefonoan egingo da.

BERASTEGI ▶

Herri-kirolei
buruz hitzaldia
gaur Mindegia

Berastegiko Kultur Asteak aurrera darrai eta gaur 20:30ean Mikel Mindegia azkolarari nafarrak aizkorarekin erakustaldi txiki bat egin eta gero hitzaldia eskainiko du herri-kirolen inguruan Muñagorri herri eskolako gimnasioan. Bestalde, bihar arratsaldean txotxongiloen ikuskizuna Behi-Bis taldearen eskutik, txokolatada eta Euskal Herriko flora eta faunari buruzkoa hitzaldia izango dira.

LEABURU ▶

Elkarbizitarako
heziketaren
inguruan

Datorren asteartean, azaroaren 23an, 18:00etan izango da Leaburuko Guraso Eskolako hitzordu berria udal-txoko gazte gelan. Kasu honetan, elkarbizitarako heziketa familian eta heziketa eredu desberdinen inguruan mintzatuko dira. Ohiko den moduan, bertaratzen direnek euren kasuak edo zalantzak azaldu ahaliko dituzte eta gainerako partaideek esperientzian oinarrituz iritzia emango dute.

GAZTELU ▶ GIZARTEA



Lehengo udaletxean dago kokatuta Kontzeju herriko taberna. IÑIGO TERRADILLOS

Kontzejuaren irekiera
izango da gaur
hainbat ekitaldirekinEsteban Pagola gazteluarra izango da arduradun berria;
Udalak kulturgune berria izatea nahi du Kontzeju

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur irekiko da herriko Kontzeju, eta era berezian ospatu nahi izan dute, astebururako zenbait ekitaldi antolatuz.

Orain gutxi egin zuten Udaletik deialdia Kontzejuaz arduratzeko lehiaketa zabalduko zela ohartaraziz. Aurkeztu zirenen artean zozketa egin eta gero, ezaguna da aurrerantzean nor izango den Kontzeju lanean; hain zuzen ere, Esteban Pagola gazteluarri egotzi zaio ondorengo hilabeteetan taberna ematearen ardura.

Gazteluko udaletxeak eta Kontzejuak elkarlanean gaurko eta biharko hainbat ekitaldi antolatu dituzte irekieran jende guztiak parte har dezan. 19:00etatik aurrera, inaugurazio ofizialaren ondoren zabalduko da Kontzeju jabe berriekin herritarrentzat eta herri-ara etortzen direnentzat. Gaur, *lunch*-aren ondoren, pelikula bat ikusteko aukera izango da.

Bihar arratsalderako, txokolatada izango dela iragarri dute eta ondoren sorpresa polita dutela prestatuta adierazi dute udaletxetik. Bestalde, Kontzejuan zenbait kupel jarriak dituzte sagardo mota desberdinekin, animatzen den edozeinek dastatzeko helburuarekin. Gauean, berriz, giro ederra izango da Kontzejuan, herri afaria egin eta gero Uda-

EGITARAUA ▶

Kontzejuaren irekiera egingo dela eta ekitaldi desberdinak antolatu dituzte gaur eta bihar.

GAUR

19:00. Kontzejuaren inaugurazio ofiziala *lunch*-arekin.

19:30. Patricia Cardoso-ren *Las mujeres de verdad tienen curvas* filma Kontzejuan.

BIHAR

17:00. Txokolatada eta ondoren sorpresa izango da Kontzejuan.

19:00. Sagardo desberdinen dastaketa, Kontzeju jarriko diren hainbat kupelekin.

20:30. Herri afaria.

22:30. Marbaundi gaua: Jone bakarlariak musika emanaldia eskainiko du.

lak eta Galtzaundi euskara taldeak antolatuta Martxaundi gaua izango baita Jone bakarlariaren musikarekin.

Patxi Navas, Gazteluko alka-teak adierazi duenez, «Kontzeju elkargune bat izatea eta kultur ekitaldiak antolatzea»

da helburuetako bat, eta horretan «Esteban Pagolak Kontzeju arduradun berriak udal-txoearen laguntza izango du. Herritarrei zerbitzu berri gehiago ematea lortu nahi dute, hauek herrian gustura sentitzeko.

hilerriak ▶

eskelek hartzen dira: 19:00ak arte • 687 530258 • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info



Bittor Zabala Amondarain



Beti egon zara gure artean
jarraitu egoten gure bihotzean

Gema, Naiara eta Iraitz seme-alabak eta Franco-Leiza sendia

TOLOSA, 2004ko azaroaren 19a

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 19a, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzola, Aduna, Albitzuri, Alegia, Alkiza, Atzo, Amezketza, Añorta, Balarriain, Belaurtza, Berastegi, Elduain, Herriak: Baina, Irua, Larradi, Leaburu, Lizarza, Orendain, Oresa, Tolosa, Wabona, Zorriki.

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza.
Kultura Saila

Foru Aldundia

GAURKO
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroena

14

hotzena

10

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

5

hitza

943 30 43 46

(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Villabona. *Decamerone* antzezlan. Ados Teatro taldearen eskutik. 22:30ean, Gurea aretoan.

DEIALDIK

Berastegi. *Herri kirolak* hitzaldia eta erakusketa. Mikel Mindegia aizkolariaren eskutik. 20:30ean, Muñagorri herri eskolan. Kultur Astearen baitan.

Elduain. Nerea Herrarte ipuin kontalaria. 18:30ean, Urdelar biltokian. Galtzaundik Euskara Taldeak antolatuta.

Gaztelu. Kontzejuaeren irekiera ekitaldiak. 19:00etan izango da inaugurazio ofiziala *lunch*-arekin. 19:30ean, *Las mujeres de verdad tienen curvas* filma izango da ikusgai.

Ibarra. Nerea Herrarte ipuin kontalaria. 17:30ean, Benito Izagirre kultur etxean. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.

Tolosa. Liburu Azoka. Gaurtik hilaren 28a arte, San Frantziskon.

Zizurkil. Jubilatuen gaztaina jatea. Elizpe jubilatui elkartearen eskutik, 17:00etan, egoitzan bertan.

ERAKUSKETAK

Ibarra. 2004ko San Bartolome jaietako argazkien erakusketa. Abenduaren 3a bitarte, Benito Izagirre kultur etxean, 10:00:etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

Tolosa. *Ahaggar... amets bat izan nuen.* Iñaki Edrosoren argazkiak. Bihar arte, Kultur Etxean. Irazki elkarte kulturantzak antolatutako jardunaldien baitan.

Tolosa. Anselmo Elizalderen koadroak, Fronton kafetegian ikusgai.

Tolosa. Ana Jesus Ansorenaren zeramikak, Lanbroa tabernan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Aduna. *Euskal Herriko musika eta soinu tresnak* hitzaldi-kontzertua. Juan Mari Beltranen eskutik. 22:00etan, Elordi plazako aretoan.

Tolosa. *Ahaggar... amets bat izan nuen.* Iñaki Edrosoren eskutik. 19:30ean, Kultur Etxean. Irazki elkarte kulturantzak antolatutako jardunaldien barruan.

KIROLAK

GAUR

Areto futbol

- ▶ Eskolapioak B-Laskorain (1. Maila. 22:00, Eskolapioak).
- ▶ Laskorain-Amara (2. Maila. 21:30, Berazubi).
- ▶ Idiazabal-Tinta Billabona (Nesken Liga. 21:45, Idiazabal).

Esku pilota

- Elkarteen Arteko Txapelketa
- ▶ Gure Txeru-Aurrera Saiaz 1 (Nagusiak. 19:00, Getaria).
- ▶ Aurrera Saiaz-Hernani (Gazteak. 20:00, Ibarra).
- ▶ Aurrera Saiaz-Ozkarbi (Nagusiak. 20:00, Ibarra).
- ▶ Zazpitturri 2-Zazpitturri 1 (Kadeteak. 20:00, Amezketza).
- ▶ Anaitasuna-Aurrera Saiaz (Nagusiak. 21:00, Azkoitia).
- ▶ Kuku-Aurrera Saiaz 3 (Nagusiak. 21:00, Alkartasuna).
- ▶ Elordi Herrigintza-Olalde (Kadeteak. 21:00, Ikaztegieta).
- ▶ Lazkao 2-Zazpitturri (Nagusiak. 21:45, Lazkao).
- ▶ Lagunak-Aurrera Saiaz (Nagusiak. 22:00, Elgoibar).

Paleta

- ▶ Kuku 1-Alzatarra (Nagusiak. Neskak. 21:00, Alkartasuna. Paleta goma).

Zesta-punta

- Elkarteen Arteko Txapelketa
- ▶ Zumaia 2-Beotibar 1 (Kadeteak. 19:00, Odieta).
- ▶ Beotibar 1-Jai Alai

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 202.a.
Orrialdeak. 28.
Tirada. 5.500 ale.
Gai nagusia. Marbxaundi Gaua.
Beste gaiak. Indiatik datorren Titirijaia, Josu Iztueta, *Ilargiaren sekretua* filma, Ikaztegieta herri krosa, Irazkiren jardunaldi magrebiarrak...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa etoribea, 6 (Tolosa).
▶ 943 65 50 04.
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

(Nagusiak. 19:00, Santa Luzia).

BIHAR

Areto futbol

- ▶ UCAM Murtzia-Hegoalde (Emakumezkoen Ohorezko Maila. 19:30, Murtzia).
- ▶ Ibarra-Jarrilleros (1. Maila A. 18:30, Belabietza).
- ▶ Laskorain-Ceram. Nogales (1. Maila B. 19:00, Berazubi).
- ▶ Goierri-Laskorain (Nesken Liga. 16:00, Aldiri).
- ▶ Perfumeria Rizos-Lauburu (Gazteen Maila. Seminarioa).
- ▶ Eskolapioak-Zestoa (Gazteen Maila. Neskak. 11:30, Eskolapioak).

Esku pilota

Elkarteen Arteko Txapelketa

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 223.a.
Orrialdeak. 32.
Tirada. 2.000 ale.
Gai nagusia. Aizkardiren Mendi Astea.
Beste gaiak. Larraulgo Kultur Astea, Amasako jaiak iruditan, Loatzo musika eskolako kalejira...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
▶ Kale Berria 47, 3. Villabona.
▶ 943 69 64 50.
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com

- ▶ Behar Zana-Eibar (Kadeteak. 12:15, Amasa).
- ▶ Añorga 2-Behar Zana (Nagusiak. 16:00, Añorga).
- ▶ Behar Zana 1-Aurrera Saiaz 2 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).
- ▶ San Esteban 2-Kuku 1 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).
- ▶ Erniope-Behar Zana 2 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).
- ▶ San Esteban 1-Kuku 2 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).

Futbola

- ▶ Mutriku-Tolosa (Gorengo Maila. 15:30, San Miguel).
- ▶ Lasarte Oriá-Amaroz (Lurraldeko 2. Maila. 17:00, Michelin).
- ▶ Intxurre-Lazkao (Lurraldeko 2. Maila. 15:30, Elorri).
- ▶ Billabona-Sto. Tomas Lizeoa

- (Jubenilen 1. Maila. 15:30, Arratzain).
- ▶ Tolosa-Usturbi (Jubenilen 2. Maila. 12:00, Zubieta).
- ▶ Real Sociedad-Tolosa (Kadeteen Euskal Liga. 12:00, Zubieta).
- ▶ Amaro-Ostadar (Kadeteen 2. Maila. 11:30, Elorri).
- ▶ Luberrri-Tolosa B (Kadeteen 2. Maila. 13:30, Berio).

Paleta

- ▶ Real Sociedad-Behar Zana (2. Maila. 11:00, Atano III.a. Paleta larrua).

Saskibaloia

- ▶ Aralar-Alde Zaharra (Senior Maila. 17:00, Berazubi).
- ▶ Tolosa-Barcelo (Gazteen Maila. 11:00, Berazubi).

ETZI

Zesta punta.

- Elkarteen Arteko Txapelketa
- ▶ Donostia Jai Alai-Beotibar (Gazteak. 11:00, Balda).

Futbola.

- ▶ Tolosa B-Martutene (Lurraldeko 1. Maila. 11:30, Elorri).
- ▶ Tolosa-Vasconia (Nesken Liga. 11:30, Zubieta).
- ▶ Texas Lasartearra-Intxurre (Jubenilen 1. Maila. 10:30, Michelin).
- ▶ Tolosa-Cultural Durango (Jubenilen Euskal Liga. 17:30, Berazubi).

MUSIKA

- Aduna.** Loatzo Eskolako ikasleen kontzertua. 19:00etan, elizan.
- Tolosa.** Muletrain eta Discipulos de Dionisios. 22:30ean, Bonberenean.

ZINEMA

- Tolosa.** *Resident Evil 2. Apocalypse.* 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Haritz Errazkin (Ibarra). Gaur 2 urte. Muxu handi bat ebekoen eta, bereziki, Janirenen partetik.



URTE ASKOAN

Oihan Arrospe Uzkudun (Leaburu). Gaur 2 urte. Egun eder bat opa dizugu. Ondokoen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletzeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!